

## Familia eta eskola arteko komunikazioa adin txikikoen garapenerako giltza da

Zenbaitetan, familiek galdetzen digute ea benetan hainbesteko garrantzia ote duen hezkuntza zentroaren eta familiaren arteko komunikazioak. Baita, komunikazio horrek seme-alaben ongizatean eragina duen edo ez.



**¿Beharrezkoa da familiek eskolan parte hartzea eta lankidetzan aritzea?.** Dolores Madrid Vivar Doktoreak erantzun dio galdera honi. Malagako Unibertsitateko Zientzien Fakultateko Didaktika eta Eskola-antolamendu Saileko irakaslea.

*“Zalantzarik gabe, familiak eta eskolak haurren hezkuntza-erantzukizunak partekatzen dituzte, horregatik da beharrezkoa aitek eta amek eskolan parte hartzea. Gurasoak eta irakasleak elkarrengandik gertuago egoteko eta horrela denak norabide berean aritzeko eta irakaskuntza-ikaskuntza prozesua aberastu eta errazteko. Bien oinarrizko xedea adingabearen osoko trebakuntza eta garapena da.*

*Erakunde bien ardurak haurrak badira, elkarrekin aritu beharko dira, irizpideak batu eta osatzeko eta bitartekoak eta ahaleginak bat egiteko, haurrek antzeko jarraibideak izan ditzaten zentroan nahiz familian jasotzen duten hezkuntzan.*

*Eskolaren eta familien arteko komunikazioa erraza eta elkarren arteko errespetuan eta konfiantzan oinarritutakoa izan beharko litzateke, horretan ados gaude denok. Dena dela, beti ez da hala gertatzen.”*

Alaitz Etxaniz Aranzetak, (UPV-EHUko doktore aurreko ikerlaria) Leioa udalerriko hezkuntza zentroetan aurrera eramaten ari den landa-laneko irizpideak eta helburuak aurkezten ditu. Halaber, adin txikikoen euskarazko hizkuntza gaitasuna estimulatzea, eskola eta familiaren baterako hezkuntza bidez gauzatzea proposatzen du.



Bere hitzetan, familia-eskola koedukazioak, erantzukizun partekatua eta lankidetzak sustatzen ditu. Bakoitzak haurren heziketan duen funtzioa eta erantzukizuna bereganatuz, bestearen funtzioa eta ekintzekiko errespetuan oinarritua.

Bestela esanda, *“koedukazioa eskola eta familia sistemen artean suertatzen den sinergia da, haurraren elkarlanean aritzeko gai direnean garapena eta hezkuntza bultzatzeko duten indarra biderkatzen dutelarik, familia eta haurrentzat babes faktore bilakatuz eta irakasleentzat asebetetze iturri”*

Paraleloki, Leioa udalerriko Hezkuntza eta Herritarren Partaidetza Sailak, Ongizatea Elkartearen lankidetzarekin, **“Denon artean” Familia eta eskola bizitzan batera parte hartuz** programa jarri du martxan. Programa bera, haur hezkuntzako 5 zentzoei eta familiei zuzentzen zaio. Helburua, familia eta eskola arteko aliantzak sustraitzea eta indartzea da. Era berean, funtsezko diren bi hezkuntza eragile nagusientzat elkargunea izatea espero da, esperientziak gehitu eta ezagutzak bateratzeko espazioa izatea hain zuzen umeen hezkuntzaren onurarako.

Koedukazioa errazteko beraz, komunikazioa lehenetsi behar da. Horrela, bada irakasleriak kontutan izan beharreko zenbait gako familiekin duten komunikazioa hobetzeko:

- A. Ikasturtean zehar egingo den lanaz informatu
- B. Familiei buruzko informazioa jaso
- D. Familiaren hezkuntza eginkizunean konfiantza izan eta adierazi
- E. Segurtasunez eta errespetuz orientatu
- F. Aniztasuna errespetatu



Modu berean, familiek badute ere komunikazioa errazteko modurik:

- A. Hezitzaileek ikasturterako lehenetsi dutenarekiko interesa agertu, entzun eta entzundakoari alternatiba posibleak eskaini.
- B. Seme-alabekin lan egiten duten profesionalen informazioa akademikoa ezagutu.
- D. Hezitzailearen hezkuntza eginkizunean konfiantza izan eta adierazi
- E. Iradokizunak egin, seme-alaben egoerak bideratzen laguntzeko kritika konstruktiboa erabili.
- F. Aniztasuna errespetatu

Finean, nahitaezkoa da jarrera positiboak sustatzea. Entzuten jakiteak, besteak helarazi nahi diguna jasotzen lagunduko digu; horretarako gure igurikapen eta proiektzioak alde batera utzi behar ditugu. Zalantzan jarri gabe onartzeak, bestea, beste modu batean ikusteko aukera eskaintzen digu. Konfiantzaren bidez ikusi ahal izango dugu bai familia eta bai irakasleok baliabide nahikoak dauzkagula aurrean ditugun erronkei aurre egiteko.

Elkarren arteko konfiantzak aurrerapausoak ahalbidetuko dizkigu eta, azkenik, daukagun errealitatea onartzeak benetako helburuak lortzen eta pesimismoa gainditzen lagunduko digu.

Asko errepikatuta eta teorizatutako gai izanik, urriaren 19an, arratsaldeko 18:00etan, Leioa udalerriko Kultur Etxean, **familia eta eskola arteko komunikazioa modu praktiko batean landuko dugu. Bi eremu hauen komunikazioa, adin txikikoen garapenerako giltza izateko beharrezko diren gakoak edo estrategia praktikoak bateratu eta garatuko ditugu.**

